

BERASTEGIKO UDALAREN HIZKUNTZ KONTSULTA.

GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUN-TXOSTENA

Gasteiz, 1997-VI-20

*Jesus Mari Makazaga,
Gramatika batzordeko idazkaria*

NOBLEZA CON LIBERTAD herriko armarriko gaztelaniazko testuaren euskal ordain jatorra zein izan litekeen galdetzen zen Berastegiko Udaleko gutunean. Gramatika batzordearen ustez honako hau izan daiteke ordain egoki bat:

LEIALTASUNA ETA ASKATASUNA

Eta horrekin batera egokitzen joko genuke ondoko hau ere:

LEIAL ETA ASKE

Gutunean proposatutako egiturak (*Leialtasunez askatasuna* eta *Askatasunez leialtasuna*) ez dira, batzordearen ustez, tradiziokoak; kasu honetan bi izenen arteko erlazioa nagusiki kopulatiboa dela iruditzen zaio batzordeari.